

Txolinkeriez

Aldameneko (Iritziaren Leihoa) batek esan dit “filosofikoegi” aritzen garela. Ez dakit, geroz, ni Ttakun honetara ailegatu aurretik horrelako gaiez mintzatzen ote zineten. Espero dut baietz. Bestela nire errua litzateke horren gai labainkor, astun, handi ustekotara –ez dut nire burua prestaturik ikusten, gainera– lerratzea. Barka nire errua bada, beraz.

Saiatuko naiz eztabaida beste nonbaitera eramaten. Areago Ur, tonto izpi gabetasuna aitortu didazunez –zinez eskertzen dizut. Zurea irakurri ondoren lasaiago egin nuen, eta ez da ironia, lo–, baina ezin dut aipatu gabe utzi, Ur, zure analisia. Zuk ere ez duzu tonto izpirik zure baitan, eta oharkabean ala nahita, iruditzen zait jauzi egiten duzula. Kexatu egiten zara denok ez garela berdina, batzuk besteak baino berdinagoak direla eta. Baike. Baina zure kexa horrek berak aldarrikatzen du moral eta etika baten beharra. Edo erabili dugun beste termino bat erabiltzeagatik gure *hillerñoa* bezatu beharra, izan ere, gure *hillerñoari* erabateko askatasuna emanen bagenio erabaki beharko genuke ez dagoela eskubiderik salbu eta nirea soil-soilik, eta nirea baldin badago soil-soilik, besterenik ez dago salbu eta bestea niri berea inposatzeko gauza baldin bada eta orduan berea izanen da eskubide bakarra (barkatu biribilketak).

Fuera, beraz, ezker abertzalearen eskubideak, fuera hizkuntza gutxituen eskubideak, fuera irakiarrenak, fuera Vietnamgo umearenak, fuera homosexualenak, fuera hura, fuera bestea eta bestea. Gelditzen den eskubide bakarra indartsuena da. Izorra zaitetz, beraz, ezker abertzalekoa bazara, edo Vietnamgo umea, edo irakiarra. Zapalduen artean egotea tokatu zaizu, eta hor konpon. Ez kexatu.

Ondorioz, moral bat aldarrikatzera behartuta nago, beharbada Niestzchek deituriko ahulena moral hura bera (zeinaren ustela eta ahalmen irentzailea salatu baitzuten), besterengatik bainoago niregatik, ni, ahula, bigarren mailako, exkasa naizela jakinik nire eskubideak defendatzeko



JUDIT FERNANDEZ

Juanjo Olasagarre

Apalategi

Basterrvetxea

modu bakarra hori dela uste dudalako. Gero Botereak edo botereek, nahi bezala, erabiltzen dutela moral hori, konforme. Morala, absolutua, unibertatsala eta denondako berdina aldarrikaturik, boteredunek partziala, partikularra eta batzuek bakarrik moldatzen dutela, konforme, baina ez badugu beharra aldarrikatzen ez dakit zein bide gelditzen zaigun. Beharbada ez genuke morala *Corpus* moduan ulertu behar baizik eta azturen bilduma moduan, Josik ongi dioen moduan, pragmatiko amerikarren bidetik.

Ildo honetatik, Josi, zuk botatuko galderei ez dakit erantzuten baina orain arrazoi osoz egiten duzun galdera horri beste galdera bat paratuko diot aurrez aurre, nolabait ere denon moralaren eite labainkorra frogatzeko edo. Hona (eta, mesedez, ulertu jauziak jauzi): homosexualok ezin ezkondu gintezkeanean (oraindik Frantzia ezin dira) justua zen ezkontza? Eta batzuek ezin zutela etikoa al zen gainerakoak ezkontzea?

Horra galdera. Beste nonbaitera eraman dudala eztabaida, baike. Baina irakurleengan ager daitezkeen harridura imintzioei esan nahi nieke homosexualen ezkontza ezarri den arte ez zela arazoa kontuan hartu ere egiten. Zenbat gizon eta emakume justu ezkondu dira batzuk ezin ezkon zitezkeela kontuan hartu gabe? Uko egin behar zioten ezkontzeari?

Eta horrekin ez dut ezer zuritu nahi, baizik eta agerrarazi agerian dagoenari baizik ezin zaiola erreparatu, morala jakinaren gainean baino ezin dela eraiki, zentzu horretan Madrilgo batek (esatearren) ez du ikusten edo ez du ikusi nahi gertatzen ari dena, heterosexualek homosexualen ezkontzearena ikusten ez zuten bezala.

Beste gauza batzuek idaztea agindu dut hasieran. Hark zioenari jarraiki, zein garrantzizkoak diren garrantzirik ez dutenak, txolinkeriez mintzatu beharko genuke, eskuan dugun liburuaz, erosi dugun *Made in Vietnam* azken arropaz, gure planez, eginen ditugun bidaiez. Ai baina... hor ere morala! ■



Beste nonbaitera eraman dudala eztabaida, baike.

Baina irakurleengan ager daitezkeen harridura imintzioei esan nahi nieke homosexualen ezkontza ezarri den arte ez zela arazoa kontuan hartu ere egiten

